

UDAKO JARDUERAK 2026 IZENA EMATEKO ORRIA

Aurtengo udako oporretarako herriko haur eta gaztetxoei zuzendutako **Udako Jarduerak** antolatuko ditu Zaldibiako Udalak, herrian bertan euskarazko aisialdia sustatzea helburuarekin. Jarduera hauetan 2 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek eta 12-15 urte arteko gaztetxoek parte har dezakete. **Ekainaren 29tik uztailaren 24ra** izango dira aurtan, astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Iaz bezala, aurtan ere kuota bakarra ezarri da eta horren barnean sartuko dira matrikula eta gainerako jarduera eta irteera gastu guztiak. HH eta LH-ko haurrek 92,52€ ordainduko dute eta DBH-ko gaztetxoek 113,08€. Dena dela, **hobari sistema zabala aurreikusi da**, egoera zaurgarrian dauden edo beharra duten familiek kuota hori ordaintzeko arazorik izan ez dezaten.

Hobariak bi motakoak izango dira. Batetik, errentaren arabekoak, lanbide arteko gutxieneko soldata kontutan hartuta, eta bestetik, familia ugarientzat hobariak. Horrez gain, kasu bereziak Gizarte Zerbitzuetan aztertuko dira. **Hobaria eskatu nahi duten familiek udaletxean entregatu beharko dute izen-emate orria eta dagokion dokumentazioa. Hobaririk eskatzen ez dutenek, berriz, Karreane kultur etxera eraman beharko dute izen-emate orria.** Izena emateko azken eguna Apirilaren 17a izango da.

Ordainketari dagokionez, **ez da momentuan egin beharko.** Izena ematerakoan, kontu zenbakia zehaztu beharko da izen-emate orrian, eta ekainean helbideratuko da kobrantza orokorra. Hobariak edota kasu bereziak banan-banan aztertuko dira, eta kobrantza egin aurretik jakinaraziko zaio familia bakoitzari zenbateko kuota ordaindu behar duen.

Izena ematen duten haurren familiekin bilera egingo da ekainean, eta begiraleen aurkezpena egiteaz gain, programazioaren azalpen orokorra azalduko da bertan.

UDAKO JARDUERAK 2026

IZENA EMATEKO ORRIA

HAURRARI BURUZKO DATUAK				
IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	JAIOTEGUNA	MAILA

GURASOEN EDO TUTOREEN DATUAK		
IZENA	1.ABIZENA	2.ABIZENA
TELEFONO ZENBAKIA	HELBIDEA	E-POSTA
IZENA	1.ABIZENA	2.ABIZENA
TELEFONO ZENBAKIA	HELBIDEA	E-POSTA

ORDAINKETA DATUAK		
Banketxeko kontu zenbakia		Titularra eta NAN-a
ES		
Hobaria eskatu nahi duzu (markatu erantzuna)		BAI EZ

HAURRAREN OSASUNARI BURUZKO DATUAK	
Gaixotasunik edo alergiairik? (Bai/Ez)	
Sendagairik hartzen du? Zenbatero?	
Haurrak ba al daki igerian? (Bai/Ez)	
Kontuan hartu beharreko beste gairik?	



UDAKO JARDUERAK 2026 IZENA EMATEKO ORRIA

GURASOEN BAIMEN ORRIA

GURASO/TUTOREAREN DATUAK: _____

HAURRAREN DATUAK: _____

Baimena emanaz gero markatu:

- ☐ 2026ko Udako Jardueretan egingo diren irteeretan nire seme-alabak parte hartzeko baimena ematen dut.

- ☐ 2026ko Udako Jardueretan aterako diren argazki eta grabazioetan nire seme-alaba agertzeko, eta horiek 'Zaldibia.eus' eta 'Zaldibia.org' webguneetan edo udal argitalpenetan publikatzeko baimena ematen dut.

Zaldibian, 2026eko _____ren _____ean

SINADURA